

# Norena da herriaren ondarea?

**Jose Mari Esparza Zabalegi**

**Editorea, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformako kidea**

Sos gutxiren truke, kanpai baten prezioaren azpitik. Jatorri frankista duen Hipoteka Legearen babespean, Konstituzioaren aurkakotzat hartua, eta herritarrei jakinarazi gabe. Modu horretan jardun da azken urteetan Nafarroako Diozesia mila ondasun publiko baino gehiagoren jabe egin arte. Bai prentsan bai jendartean oihartzun handia izan du eta Nafarroako 117 udalek eta kontzejuk bat egin dute herri-ondarea defendatzeko.

**GAKO-HITZAK:** Plataforma · Nafarroako elizak · Eskandalua.

The Diocese of Navarre has got hold of over a thousand public goods in a few years. It has been done for a handful of Euros, less than the price of a bell, and under the protection of the Mortgage Act, which comes from Franco's time and has been challenged as unconstitutional. Moreover, everything has been done without informing the people. The media and the society have denounced the fact. 117 councils from Navarre have joined together to defend the collective heritage.

**KEY WORDS:** Platform · Navarre's churches · Scandal.

*Jasotze-data:* 2009-04-03. *Onartze-data:* 2009-06-15.

Artikulu honetan jorratuko dugun gaia hauxe da: zer gertatu den, eta zer gertatzen ari den Nafarroako milaka ondasunekin, orain arte immatrikulatu gabe zeuden eta orain, oso denbora laburrean, Eliza Katolikoaren jabego osora izatera pasatu direnekin, guk diogun moduan, kanpai bakar baten salneurriaren truke.

Gaurko ekitaldiaren hizpidea «Nafarroako Erljio Tokiak norenak?» da, baina ni ez natzaio lotuko titulu horri, zeren gaur egun afera sakonagoa eta zabalagoa baita. Erljio-tokiekin hasi ginen, baina orain badakigu ildo beretik beste ondasun mota asko immatrikulatu egin direla. Eta oso inportantea da beste ondare horiek kontuan hartzea, zeren eztabaida beste maila batean kokaturik dago, eta Elizarendako maila hori askoz deserosoagoa da: arazoa ez baita erlijio-tokiak norenak diren, baizik eta mota askotako ondasun eta ondare horiek guztiak norenak diren.

Hortxe dugu, adibidez, Etxauribarrean Ziritza herria: immatrikulatu diote eliza, baina bide beretik eskolak, hilerria, apaizetxea, maisuaren etxea, herriko espetxea, atrioa, lur-sail bat eta udaletxeko parte bat. Bederatzi ondasun 70 biztanleko herri batean. Ziritza bezala badira herrixka asko, horregatik diot ez dela erlijio-tokiaz bakarrik mintzatu behar.

### **Zertaz ari gara?**

Gauza bat argi eta garbi utzi behar dugu: immatrikulazioaz hitz egiten dugunean, Jabetza Erregistroan lehen aldikotz izkiriartzen diren ondasunekin ari gara. Hemen ez ditugu kontuan hartuko Elizak jasotako donazioak, herentziak, erosketak, limosnak eta abar. Bego hori guztia bere eskutan. Hemen bakarrik, jabetza-titulorik ez zuten eta Jabetza Erregistroan inskribatu gabe zeuden ondasunekin hitz egingo dugu, zeinak egun batetik bestera, ixiltasunez, dohainik eta andanaka Elizaren jabego izatera pasatu baitira.

Jakin badakigu gure herrietan badirela ondasun asko eta asko erregistratu gabeak, eta betidanik onartu izan da, erregistratu gabe edo jabetzarik gabe dauden ondasunak herriarenak direla. Esate baterako, Nafarroako herri gehienetan ez daude erregistraturik lur komunalak, herriko etxeak, eskolak, frontoiak, hilerriak, plazak, atrioak edo apaizetxeak, elizak eta baselizak ez ziren moduan... Udalek ez zuten hori guztia erregistrora eramaten horren beharrik ikusten ez zutelako. Zertarako? Herriarena zen eta kito. Orain garbi dago udalak eta kontseiluak adi egon behar direla ondasun horiek ken ez diezaizkieten.

Ni ez naiz historialaria baina zenbait udal-artxibo ongi ezagutzen ditut eta jakin badakit nola erabakitzen zen eliza eta baseliza asko eraikitzea; nola erosi zuten altzari, erretaula eta arte guztia, eta zenbat kostatu zitzaion udalari kanpaia edo patena bakoitza. Ez da historialaria izan behar hori frogatzeko, Nafarroako edozein udal-artxibotan fakturak barra-barra badira.

Historikoki, elizaren eraikina denetarako baliatzen zen: elizkizunen lekua bai, baina udaletxea ere, herri-batzarrerako lekua, artxiboa, eskola, hilerria, herriaren abisatzailea kanpaien bidez, baita defentsarako gotorlekua ere. Gauza guztietarako egiten ziren-eta elizak.

## Modu pribilegiatu bat

Aurreko guztia jakinik, duela bi urte, txiripaz, Tafallako Erregistroan konturatu ginen inguruko eliza guztiak immatrikulatu berriak zituztela: Tafallako Santa Maria eta San Pedro, Erriberriko San Pedro; Uxueko Santa Maria Errealia; Artaxoako Zerkoko San Saturnino... Beste erregistroetara jo eta antzeko datuak aurkitu genituen: Agoizko erregistroan hirurehun immatrikulazio baino gehiago eginak zituzten zuela denbora gutxi. Ehunka eliza, egun beretan eta prozedura bera: *Artículo 206 de la Ley Hipotecaria*. Galdetu genuen ea beste euskal probintzietan antzekorik gertatzen ote zen, eta han ez zen horrelakorik edo behintzat ez hemen bezalako abiadurarekin. Bistan zegoen honetan ere Nafarroa diferentea dela, eta Sebastian den bezalako apezpiku ultrasekuindar batekin edozer gerta zitekeela.

Prozedura oso sinplea da: egun batean, Erregistroan aurkezten da *diócesis* edo elizbarrutiko arduradun bat ondare-zerrenda batekin, esanez beraien zertifikazioaren arabera, Elizarenak direla. Ez dute eramaten, ez eskriturarik, ez notarioaren ziurtagiririk, ezta herriko udalaren idazkariaren informerik ere... Beraien zertifikazioa bakar-bakarrik. Hogeitaz hamar euro ordaindu ondasun bakoitzarengatik, eta ondare horiek immatrikulatzen dira («modu pribilegiatu batez», guri erregistratzaileak berak aitortu zigun bezala). Mila ondare, hogeitamar mila euro, kanpai baten salneurritz. Bi urte pasatu eta gero, immatrikulazio hori tinko bilakatzen da, eta nahi izanez gero, hirugarren bati sal dakioko.

Immatrikulatu ondoren, edozein helegite eta erreklamazio, epaileak erabaki behar du eta «frogaren ardua eta lana» erreklamatzaileraren bizkarrean eroriko da. Beraz, oso erreza eta merkea egiten zaio elizbarrutiari immatrikulatzea, eta oso zaila eta garestia herri bati berreskuratzea.

Hori bai, 206. artikulua prozedurak berdina balio du udal eta kontseiluendako: niri neuri egokitu zitzaidan eliza bat immatrikulatzea. Duela zenbait urte Tafallako zinegotzia nintzela, nire ardua izan zen herriko lur komunal guztiak immatrikulatzea, udalaren izenean. Orduan planteatu zen zer egin San Gregorio baselizarekin, eremu komunal baten barruan zegoela, baseliza guztiak dauden gisan. Logikaz hartu genuen erabakia: lur komunal batean baldin bazegoen, udalak mantentzeko gastu guztiak pagatzen bazituen, eta XVII. mendean udalak erabaki bazuen erakitzea, herriarena zela dudarik gabe esan genuen, eta erregistratu egin genuen. Eta horrela jarraitzen du. Inork, inoiz ez zigun deus erreklamatu, naiz eta prozedura oso publikoa izan. Orain herriarena da.

Eta horretan datza disparate juridiko hau: ondare horiek norenak dira? Erregistratorako bidea lasterka gehien egiten duen korrikalariena? Ez al da serioagoa, immatrikulatze-prozesu honetan balizko interesa duten guztiak kontuan hartzea? Elizak izanen ditu bere eskubideak, baina udalek ere, baita kontseiluek eta auzokideek ere... Nola da posible batek immatrikulatzea milaka ondasun besteak deus jakin gabe? Eta disparate juridiko horrek eskandalu honetara ekarri gaitu.

## Zer da Hipoteka Legea?

Hipoteka Legearen 206. artikulua haxe dio:

El Estado, la Provincia, el Municipio y las Corporaciones de Derecho Público o Servicios Organizados que forman parte de la estructura política de aquél y las de la Iglesia Católica, cuando carezcan de título escrito de dominio, podrán inscribir el de los bienes inmuebles que les pertenezcan mediante la oportuna certificación librada por el funcionario a cuyo cargo esté la administración de los mismos, en la que se expresará el título de adquisición o el modo en que fueron adquiridos.

Horrek esan nahi du Eliza Katolikoak, eta ez beste Elizek, baduela eskubidea immatrikulatzeko Estatuko instituzio bat balitz bezala!

Beste abantaila handia hau da: immatrikulazioa egin ondoren, ez dute ediktoak publikatu beharrik, eta hori dela-eta jendea ez da konturatzen Erregistrora espresuki galde egitera ez badoa (guk txiripaz egin genuen moduan), edo jabetzaren gaineko erabakiak hartzen dituztenean: saltzean edo, duela gutxi Azkonan gertatu den moduan, apezpikuak botatzen dituztenean ondasun hori erabiltzen ari diren auzoak.

Guri, bai legegizonek bai jabetzaren erregistratzaileek aitortu digute prozedura edo bide hori oso ezohikoa dela eta horregatik, erabiltzekotan, gutxi erabili behar dela, kontuz eta neurriz. Alta, Nafarroan barra-barra erabili da, eta ehunka edo beharbada milaka ondasun immatrikulatu egin dira lege hau sortu zenetik hona.

## Kultu-tokiak

Hipoteka Lege hori 1946koa da, frankismo-garaikoa. Zer gertatzen da 1998an? Gobernuak kendu egin zuen Reglamento Hipotecario delakoaren 5. artikulua, zeinak kultu-lekuak espresuki immatrikulatzea debekatzen zuen. Hau da, frankismoak berak ez zion ezagutzen Eliza Katolikoari erlijio-tokiak immatrikulatzeko eskubidea. Urte horretako dekretuarekin, bide hori zabalik geratu zen eta 1.087 ondare immatrikulatu egin zituzten, urte gutxitan.

Hipoteka Legearen 206. artikulua abolizioa premiazko behar urgentea da, higiene demokratikoarengatik. Ni ez naiz luzatuko gai honetan, baina gurekin hitz egin duten jurista guztiek diotenez, 206. artikulua hori Konstituzioaren kontra dago eta erabat antidemokratikoa da. Eliza Katolikoa eta Estatua banaturik daude, eta elizbarrutiko kide bat ez da inor, *fedatario publico* balitz bezala dokumentuak egiteko.

## Plataformaren sorrera

Eskura genituen datuekin Altaffaylla Kultur Taldekook erabaki genuen salaketa publiko bat egitea. 2007ko apirilean argitaratu genuen gutun bat komunikabideetan, «Escándalo Monumental» tituluarekin eta Pandoraren kutxa ireki zen.

Gero ezagunak dira eman ditugun pausoak: aurrean zer-nolako problema genuen ikusirik, Altaffaylla Kultur Taldeak deitu zuen Nafarroako gizartea. Jende eta erakunde ugari bildu ziren eta hortik sortu zen Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma.

Eta hara non gure sorpresa; izan ere, guregana etorri zen jende asko kristauak eta apaizak ziren! Eta lehenbiziko momentutik oso garbi utzi genuen, plataforma bezala antiklerikalismoaren ildoak ez genuela jorratuko, erlijioaren edo kristauen kontra ezer ez genuelako. Baina aldi berean, oso garbi esan genuen ezin onartuzkoa zela Elizaren Hierarkiaren jokabidea eta jukutria hori salatuko genuela *per ommian sekulan sekulorum*.

Plataforma bide instituzionala jorratzen hasi zen, eta lortu genuen 12 udalen adostasuna (Hamabi Apostoluak deitzen diegu: Altsasu, Burlata, Aranguren, Berriozar, Etxauri, Garinoain, Irurtzun, Leitza, Puiu, Uharte, Juslapeña-Txulapain eta Arronitz), eta 2007ko abenduan Udal eta Kontseiluen Batzarra deitu zuten Burlatan. Batzar hartan Udal eta Kontseiluen Batzordea izendatzea erabaki zen, eta orain arte Nafarroako 117 udal eta kontseiluren atxikimendua lortu dute.

2008ko apirilean, Plataforma eta Udalen Batzordea Nafarroako Parlamentura joan ginen eta hango talde parlamentario guztiei helarazi genizkien gure kezkek eta gure eskaerak. Eta han beste sorpresa bat izan genuen: bat izan ezik, talde guztiek zoriondu egin zuten Plataformaren lana, eta ez zen izan inor Elizaren jokabidea defendatu ezta justifikatu zuenik ere.

### Ondasunen zerrenda

Nafarroako Parlamentutik orain arte lorturiko emaitza bakarra, 1998tik hona 206. artikularekin eginiko immatrikulazioen zerrenda da. Eta hau beste sorpresa bat izan da:

– Elizak	651
– Baselizak	191
– Basilikak	9
– Etxebizitzak, lokalak, garajeak...	68
– Atrioak	2
– Hilerriak	8
– Finkak, baratzeak, larreak, ardantzeak, olibondo-sailak, zuhaitziak, pinudiak...	157
– Frontoiak	1
<b>Oso tara:</b>	<b>1.087</b>

Hau ikusita, apezpikuak erabilitako argudio bakarra erortzen da lurrera: «Herriko elizak, Elizarenak dira» diote, ozenki. Nola esplikatu, ordea, 1.087 immatrikulazio horietatik 236 elizak ez izatea? Etxebizitzak, lurrak, larreak... Nork bedeinkatu egin ditu ondasun horiek Elizarenak izateko?

### **Apezpikuaren argudioak**

Agian, gaur beste argudio batzuk emango dizkigute, baina orain arte hauexek izan dira, laburbilduz, apezpikuak emandako sei arrazoi:

1. Elizak eta baselizak betidanik Elizarenak izan direla.
2. Herriko erlijio-tokiak kristauak altxatu zituztela borondatez, Jainkoa gurtzeko.
3. «Los templos, por lo general se construían por iniciativa de la Iglesia» esan zuen, hitzez hitz, apezpiku berriak 2008ko maiatzean.
4. Udalek agian izan dutela elizaren patronatua, baina gauza bat dela patronatua eta beste bat jabetza.
5. Immatrikulatzen ari direla bai, baina herriko parrokiarendako.
6. Sebastianek, Uxueko erromerian esan zuen gurea zela «un ataque al pueblo de Dios», «Jainkoaren Herriaren aurkako eraso».

Sei arrazoi eta seiak, oro har, gezurrak. Gainera, dioena baino interesanteagoa da apezpikuak ez dioena, zeren «elizak Elizarenak» direla esatea polita eta biribila dela ematen du, baina ez gara hemen elizez eta baselizez bakarrik hizketan ari: etxeak, lokalak, hilerriak, baratzeak, zuhaiztiak eta larreak ere izan dira immatrikulatuak prozedura berarekin eta, horretaz, bi urteetan, apezpikuak ez du aipamenik ere egin.

Seigarren arrazoia, «un ataque al pueblo de Dios» «Jainkoaren Herriaren aurkako eraso» dela Sebastianen esanetan, ez dugu kontuan hartu ere eginen. Hau izan zen Sebastianen lehenbiziko erreakzioa, barnetik eta erraietatik atera zitzaiona, eta esaldiari kutsu gaiztoa dario. Jakin badakigu, XVI. mendean biziko bagina, Sebastian inkisidoreak sutara bidaliko gintuela, baino gaur egun hori ez da posible (hala espero dugu, bederen).

Deskalkifikazio-esparru hau oso labainkorra da, eta horregatik diot ez dugula kontuan hartu ere egingo. Ez du merezi.

### **1. Eliza eta bazeliza guztiak beraienak direla?**

Hori frogatu behar da. Ezin da esan, elizbarrutiko bozeramaileak esan zuen moduan «que se ha demostrado durante siglos, muchos antes de que existieran los propios ayuntamientos, que el titular de esa propiedad es la Iglesia Católica». Hori ez da egia. Ez zegoen herri bateko eliza edo baseliza egiterik, eraikitzea erabakitzen zuen herri bat egon gaberik. Eta herri horrek betidanik izan ditu bere agintariak: batzarra, kontzejua, *cambrá*, errejimentua eta geroago deituriko udalak.

Beharbada, zenbait kasutan egia izango da, baina beste kasu askotan, gehienetan esango genuke, herriarenak dira, beraien artxiboetan ongi frogatzen

ahal delako. Erosketa guztiak, altzari guztiak, apaizen arropak, kalizak, guru-tzeak... Hori guztia enkargatzen zuten udalek, eta herriaren diruz edo auzolanez pagatzen zen. Apaizak, sakristauak, kanpaia-jotzailea eta almosneroak ere udalak berak kontratatzen eta pagatzen zituen moduan. Kasu gehienetan Elizak ez du pagatu adreilu bat ere.

Tafallako Udal Artxiboan, beste guztietan bezala, milaka faktura eta inbentario daude Elizaren gastu eta erosketa guztiekin. Elizbarrutiak immatrikulatu ondoren, norena da gure patroiz San Sebastianen irudia? Mendez mende udalak oso garbi utzi du bere jabetza. 1798n udalak esan zien apaizei, garbiki: «El bulto o imagen de San Sebastián es propio y privativo de esta Ciudad y como tal dispone de él despóticamente cuando se ha de sacar en procesión o se ha de hacer alguna rogativa». Zergatik izan behar da orain Vatikanorena?

Batzuek diote ezen XIX. mendeko Desamortizazioarekin gauzak garbi geratu zirela, baina gauzak ez dira batere garbi ikusten: lehenik, Desamortizazioan komentuez eta lurrez hitz egiten da, baina ez herrietako erlijio-tokiez.

Bestaldetik, *Ley Paccionada* delakoa baino lehenagoko Espainako legeek, zer eragina izan behar zuten Nafarroan? Eta gero, erabaki zenean ondasunak Desamortizazioaren aurreko egoerara itzultzea... zein zen egoera hori? Zeren gure herrietan berdin jarraitu zuten: elizak zaintzen, konpontzen, eraikitzen eta den-dena herriaren kontura eta bizkarrera. Zergatik diote elizbarrutiko agintariek pasa den mendean afera hau erabaki zela?

Eta XIX. mendea aipatzen bada, zergatik ez da kontuan hartzen errepublikagaria, 1933an, *Ley de Confesiones Religiosas* deiturikoa onartu zela eta ondare horiek guztiak «publikoak» izendatu zituela 11. artikuluan?

Art. 11. Pertenezen a la propiedad pública nacional los templos de toda clase y sus edificios anexos, (...) La misma condición tendrá los muebles, ornamentos, imágenes, cuadros, vasos, joyas, telas y demás objetos de esta clase instalados en aquellos y destinados expresa y permanentemente al culto católico...

Eta 12. artikulua zer zioen?

Art. 12. Las cosas y derechos a que se refiere el artículo anterior seguirán destinados al mismo fin religioso del culto católico, a cuyo efecto continuarán en poder de la Iglesia católica para su conservación, administración y utilización según su naturaleza y destino. La Iglesia no podrá disponer de ellos y se limitará a emplearlos para el fin a que están adscritos.

Frantzian gauza bera gertatzen da oraindik. Gure Iparraldean ere: herriek eta botere publikoek zaindu eta mantendu, eta apaizek erabiltzen dituzte beren eginkizunetarako.

Hori hemen ohitura izan da: Juan Albizu presbiteroak, 1915ean idatzi zuen Erriberriko Elizen Historian antzeko gauza bat esan zuen: «La iglesias en su origen pertenecen en lo espiritual al abad tal o al monasterio cual o al Obispo de aquí o de allá; y en lo material las administraba o el rey, o el patrono, o el fundador».

Eta hori berori diogu guk: espirituala apaizarentzat, eta materiala herriarentzat. Edo Jesukristok esan bezala: «Eman Jainoari Jainoarena, eta Zesarri Zesarrena».

## **2. «Herriko elizak kristauek altxatu zituzten borondatez, Jainkoa gurtzeko» dio Eliza Katolikoak**

Gezurra eta zazpigarren manamenduaren kontrako bekatu mortala: borondatez eta bortxaz egin zuten. Eta zigorren menpe. Zerga guztiak bezala. Frankotan, primiziak, auzolanak eta elizetarako zergak jende askok ezin zituen pagatu eta udalak ezartzen zuen zigorra. Gaur egun hala gertatzen da herri askotan: Lizarraldean, Deierriko bailaran, mendiko egurra jasotzeko eskubidea izateko, bizilagunek elizako lanak egin behar dituzte, garbiketa, obrak, kanpaiak jo... Bizilagun guztiek, ateok ere.

Borondatez izan ala ez, apezpikuak, elizbarrutiak, ez dute inolako eskubiderik auzolanak eta herriarentzako lanak Eliza Katolikoarendako eginak zirela esateko.

## **3. «Los templos, por lo general se construían por iniciativa de la Iglesia» esan zuen apezpiku berriak**

Oro har, hori ez da egia, eta hor daude, lekuko, Nafarroako artxibo *guztiak*. Nork erabaki zuen *Virgen del Romero* deritzan eliza eraikitzea? Cascanteko Udalak, 1684ko ekainaren hamaikan. Eta herri osoak pagatu zituen balio izan zituen 12.000 dukatak.

Nork erabaki zuen Iruñeko San Fermin Kapera egitea? Iruñeko Udalak, 1696ko uztailaren hamaikan. Eta pagatzeko sei urtez suspenditu egin zituzten Sanferminetako zezenketak.

Eta Tafallako Udala izan zen 1538an Santa Maria eliza egitea erabaki zuena. Eta 1658an, Tafallako auzo guztiok bildurik, erabaki zuten eliza eta komentu bat eraikitzea, eta geroago lortu zen apezpikuaren baimena, Kaputxinoei emateko.

Oro har, Elizak ez zuen erabakitzen, inolaz ere, herriko tenploak, basilizak, hilerriak edo apaizetxeak eraikitzea. Hori bai, baimena ematen zuen kultoari hasiera emateko (menturaz arinkeria dirudi, baina hau da pilotan bezala: herriek egiten dituzte frontoiak, baina ezin da jokatu ofizialki, Pilota Federazioaren baimena eskuratu arte; alta, ez dugu federazioa sekula ikusi herri bateko frontoia immatrikulatzen, berea dela esanez).

## **4. «Gauza bat da patronatua eta beste bat jabetza» dio apezpikuak**

Hori ere lekuz leku ikusi behar da. Oro har, udalek berek osatzen zuen patronatua, eta beste batzuetan auzo guziek batera. Ez zen udaletik aparteko zerbait, gauza independente bat. Kasu askotan, herria beharturik zegoelarik, udalak hartzen zuen dirua parrokien patronatutik inolako problemarik gabe.

Uharteko kasuan, XIX. mendean izandako auzi batean, udalak apaiza bota zuen patronatutik eta eskatu zuten informe batean azaldu zuten «que aunque no he podido apurar el origen del Patronato de las iglesias de Huarte encuentro una antiquísima e ininterrumpida posesión, y una multitud de hechos que me persuaden a creer que pertenece única y privativamente a la villa con exclusión del vicario... Esa misma regalía la persuade también el escudo de Armas de la villa, que se halla colocado en su Iglesia (...)».

Patronatu eta jabetza askotan gauza bera izan dela Nafarroako *Señoríos* direlakoetan ikusten da. Hor oso agerian agertzen da elizbarrutiak bi neurri ezberdin erabili dituela: bata herriaren ondarearekin, eta bestea *Señorío* edo jaurerri batenak diren ondasunekin.

Zergatik Elizak immatrikulatu egin ditu Nafarroako eliza guztiak, jaurerriak diren Oriz, Gerendian, Etxalatz, Bariaín edo Sarria izan ezik? Hau da, Baldorbako eliza guztiak immatrikulatu ditu eta ez Bariaingoa, jauntxo batena den bakarra? Ez al du esaten apezpikuak erlijio-toki guztiak betidanik Elizarenak direla? Zergatik jauntxoaren eta aristokraten ondasunak errespetatu eta herrienak ez? Zergatik «jabetza pribatua» bakean utzi eta «jabetza publikoa» immatrikulatu? Agian, gure irudiko, jabetza pribatuaren atzean jende boteretsua dagoelako (Huarte familia, esaterako) eta beraien ondasunak irmoki defendatuko dituztelako? Aldiz, ondasun publikoak, komunalak... gaixoak, nork defendituko ditu?

Beraz, Nafarroako jaurerrietan badugu beste froga bat eliza guztiak ez direla Elizarenak eta patronatua eta jabetza nahasten direla maiz.

## **5. Immatrikulatzen dutela bai, esaten dute, baina herriko parrokiarendako**

Eta hori ere ez da egia eta argudio demagogikoa da. Egia da immatrikulatzeko momentuan, ohar gisa zenbait kasutan esaten dutela: «Titular: Diócesis de Pamplona para la parroquia de Tal...» baina hori ez beti, eta ongi ikusten da botere juridikoa duena immatrikulatzeko elizbarrutia dela. Eta Nafarroako Elizbarrutia Vatikanoren mendekoa da. Azken finean, Estatu arrotz bat, Vatikanoa, jabe osoa da. Asmatu ezinezko tamainako higiezin-agentzia baten jabea.

Eta parrokiek ez dutela ezer pintatzen ez diogu guk, parrokoek beraiek baizik: joan den urtean, eskandalua sortu ondoren, zenbait parrokok apezpikuari gutun bat bidali zioten, esanez, ez zeudela ados Plataformak esaten zuenarekin, baina ezta elizbarrutiak egindakoarekin ere. Eta esaten zuten, ondasun horiek ez zirela udalenak ezta elizbarrutiarenak ere, parrokienak baizik, eta horrenbestez, immatrikulatzeko momentuan, titulua «Diócesis de Pamplona para la parroquia tal...» jarri ordez, titulua: «Para la parroquia» izan behar zela zioten.

Hauxe esaten zuten parroko horiek:

La Parroquia está integrada en la Diócesis a nivel pastoral; no, a nivel económico (...) Los feligreses se sienten corresponsables de la pastoral parroquial, incluida la dimensión económica de la misma, y sufren no pequeña decepción cuando la Curia suplanta a la Parroquia en ciertas decisiones de contenido económico vg. enajenando iglesias, casas parroquiales...

En este sentido al ser informados del patrimonio parroquial y leer que los bienes parroquiales están inscritos en el registro de la propiedad a nombre de “Diócesis de Pamplona (...) para la parroquia de...”, entienden que se les ha sustraído el derecho de propiedad, y más todavía, al saber que en el Catastro del Ayuntamiento figuran exclusivamente las palabras “Arzobispado de Pamplona”.

Bistan da, Plataformakook ez gaude ados parroko talde horrekin. Guk diogu antzineko parrokia lehen herri osoak osatzen zuela, eta orain herriaren ordezkari legitimo bakarrak udalak direla. Baina adibidea oso ongi dago ikusteko elizbarrutiko egia biribil horiek oso zalantzarriak direla Elizaren baitan bertan ere.

### Zenbait galdera

Orain arte esan dudan guztia laburbilduz, zenbait galdera eginen genizkieke apezpikuari eta gure botere publikoei:

1. Lehen galdera. Nola da posible 1998tik hona nafar ondasunekin horrelako mugimendua gertatzea eta inor ez konturatzea?
2. Bigarrena. Apezpikuak esaten baldin badu erlijio-tokiak herri kristauarenak direla, nola esplikatu lezake lurrak, baratzeak, zuhaitziak, larreak eta abar immatrikulatzea 206. artikuluan berberarekin?
3. Hirugarrena. Zer azalpen du hilerrien kontuak? Zergatik 8 bakarrik? Zergatik pagatu zion Nafarroako Gobernuak apezpikuari Itoitz urtegia egin zutelarik, 1.679.000 euro, Itoitz, Artozki, Orbaitz eta Muniain herrietako erlijio-tokiengatik eta herri horietako hilerriengatik? Noiztik dira apezpikuarenak Nafarroako hilerriak?
4. Laugarrena. Eta apaizetxeak? Horiek ere erlijio-tokiak al dira? Nafarroako herri askok eraiki zituzten apaizetxeak, maisuetxeak, batzuetan medikuetxeak eta udal-idazkariaren etxeak eta eskolak ere. Herriak pagatuta, goitik behera eta kasu askotan altxatu zituen jendea bizirik dago. Denboraren poderioz, herri horietako apaizek utzi zituzten etxeak, hala nola maisuek eta medikuek. Eta eskolak hustu ziren, kontzentrazioak egin zituztelarik. Baldin eta maisuek, medikuek, idazkariek eta Hezkuntza Ministerioak utzi badituzte etxeak, zergatik da Eliza Katolikoa etxeak atxikitzen dituen bakarra?
5. Bosgarrena. Nola esplikatu aurrea hartu duten herrietan udalak immatrikulatzea? Hau zer da, higiezin-lasterketa bat eta korrika gehien egiten duenak eramaten du ondasuna saritzat eta galtzaileak, erreklamatzeko badu, frogaren karga? Disparate honen aurrean, epaileek, Nafarroako Gobernuak edo Parlamentuak ez dute zer esanik?
6. Seigarrena. Zergatik esaten ahal du Elizak, herrien erreklamazioen aurrean, ondasunak *usucapionen* poderioz bereak direla? Hau da, 20 urtez atxiki dituela bere gain lasaitasun osoz, eta horrenbestez legalki bereak direla betiko? Hori legala izanda ere, ez al da ez-moral samarra?
7. Zazpigarrena. Zenbat da 1946tik hona 206. artikuluan immatrikulatu egin duten guztia? Zergatik Elizak ez dizkie erakusten kristau-herriari eta gizarte osoari dauzkan ondare guztiak? Egia al da, guk diogun moduan, Nafarroako higiezin agentziarik handiena dela? Eta ez al da egia, Plataformako kide

kristau batzuek dioten moduan, horrek ez duela inolako justifikaziorik, txiro-tasuna, pobrezia eta umiltasuna predikatzen dituen Eliza batean?

8. Zortzigarrena. Nola pentsatzen dute mantentzea ondare horiek guztiak? Orain arte bezala? Ni jabea eta zuek pagatzaileak? Zenbat eliza daude itxita? Zenbat erortzen ari dira? Zeren zain dago apezpikua? Beti bezala herriek eta instituzioek noiz konponduko dituzten zain? Ondare publikoak immatrikulatzea eta besteek mantentzen dituztena, ez al da lotsagabekeria?
9. Bederatzigarrena. Zergatik ez da garbi esaten norentzat immatrikulatu egin den? Parrokiarentzat, elizbarrutiarentzat ala Vatikanarentzat, azken finean?
10. Eta azkena. Eta agian inportanteena:

### **Zertarako egiten dute hori?**

Norbait erregistrora badoa ondare bat immatrikulatzera, lau arrazoiengatik egin dezake:

- A. Saltzeko
- B. Alokatzeko
- C. Hipotekatzeko
- D. Jabetza erabiltzeko

Lau posibilitate horietatik laurak edo gutxienez hiru erabili ditu apezpikuak azkeneko urteotan, nabarmenki:

A. Saldu, saltzen ari da. Artaxoako organoa saldu zuten moduan; edo Lizoain-go eliza; edo Tuterako San Nikolas eliza, edo Iruñeko Jesus eta Maria eliza.

Azken adibide hori oso interesantea da: errepublika-garaian Gobernuak inkautatu nahi izan zuen Jesuitena zelakoan, baina ezin izan zuten inkautatu Iruñeko Udalak berea zela aldarrikatu zuelako. Hala eta guztiz ere, 2001. urtean apezpikuak immatrikulatu zuen eta 2007an saldu zion udalari berari, 468.798 euroren truke gehi 2.000 metro karratu Sanduzelai auzoan. Hori gauza handiekin egiten bada, zer ez dute egiten gauza txikiekin, artearekin esaterako? Hor ditugu Nafarroako paretetan noiz edo noiz agertzen diren afitxak, non zenbait enpresak oso garbi uzten duten denetarik salerosten dutela.

B. Alokatu ere egiten dute, eta areago immatrikulatu eta gero. 2006an immatrikulatu zen Iruñeko Katedrala. Nafarroako Gobernuak eginak zituen egundoko obrak, 2.500 milioi pezeta zahar. Obrak bukatu eta apezpikua hasi zen sarrera kobratzen. Tafallako elizak 2006an izan ziren immatrikukatuak. Pasa zen urte bat eta apaizak esan zion udalari, urtean zehar egiten diren kontzertuengatik eta ekitaldi guztiengatik pagatu behar zutela kanon bat. 200 euro aldi oro. Sekula santa ez da horrelakorik gertatu.

C. Hipotekak: oraindik ez dugu frogarik, hala ere logikoa dirudi, ageriko gauzak egiten badituzte (saltzea, alokatzea...) hori ere egingo dutela.

D. Eta azkenik jabetza erabiltzeko. Eta azkeneko urteotan ikusi ditugu gauza harrigarriak, lotsagarriak esango nuke: leku askotan apaizek ez dituzte lehen bezala elizako giltzak uzten, eta zenbait lekutan hasi dira zentsura ezartzen. Erriberrin, debekatu zioten otxote bati *Ene maitia* eta *Maitia nun zira* kantatzea (hori bai, kantu errusiarrak eta alemanak kantatzea baimendu egin zuten, problemarik gabe) eta gero eta gehiago exigitzen diete abesbatzei eta kantariei erabiliko duten errepertorioa haiei erakustea, Franco garaian egiten zen moduan.

### **Plataformaren helburuak**

Bukatzeko, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformaren izenean garbi utzi nahi dut gure jarrera:

Eliza gehienak, baselizak eta 206. artikuluekin immatrikulatu diren ondasun guztiak itzuli egin behar zaizkie herriei, herrienak direlako. Herriek eta Nafarroako Instituzioek sostengatu egin behar dituzte, Iparraldean egiten den bezala; irekita eta zabalik egon behar dira herritarrek errespetu osoz erabiltzeko, historikoki erabili izan diren moduan, eta kultu-lekuak kulturako erabili behar dira orain arte erabili diren gisan.

Elizak bere jarreraren segitzen badu «dena nirea da» esanez, Plataformak eta Plataformarekin bat egiten duten nafar udal eta kontseilu orok, epe luzerako bataila jokatuko dugu hiru esparrutan:

1. Hipoteka Legearen 206. artikulua desagertu behar da, antikonstituzionala eta antidemokratikoa delako. Feudalismoaren arrastoa. Ondare bat inmatrikulatzeko Elizak izan behar du edozein pertsonak eta edozein instituziok duen bezalako eskubidea. Ez gehiago. Eta are gutxiago, erabiltzeko erakutsi duen arinkeria kontuan hartuta.
2. Bigarren bataila herrietan jokatuko dugu:
  - a. Udalek immatrikula ditzaten immatrikulatu gabeko ondareak. Orain jadanik egiten ari dena.
  - b. Erne egon, eta salatu, herri-ondasunekin Elizak egindako edozein mugimendu. Ez dezaten pentsa utziko ditugula gure ondareak saltzen, erosten edo simonia bekatuan erortzen.
  - c. Eta jakina, ahalegin guztiak eginen ditugu herriko ondareak berreskuratzeke. Zorigaitzez, hori oso zaila izanen da Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak aurrerapausoak ematen ez badituzte.
3. Eta hirugarrenez, hemen dago bataila moral bat: hori ez da egiten. Horrela ez da egiten. Elizak eskandalizatu egin du Nafarroako gizartea, eta lotsatu egin ditu kristau asko. Eta jarraitzen badu ildo horretatik, ez dago dudarik ondare eta diru asko irabaziko dituela, baina Infernua irabaziko du ere, arima eta sinesgarritasuna betiko galduko dituztelako.

Iruñean, 2007/III/26

## Bibliografia

- Altaffaylla, (1996): *Navarra 1936. De la Esperanza la Terror*, Altaffaylla, (talde koordinatzailea).
- Esparza Zabalegi, J. M. (1985): *Un camino cortado. Tafalla 1900-1939*, Altaffaylla.
- , (1988): *Jotas heréticas de Navarra*, Altaffaylla.
- , (1994): *¡Abajo las Quintas! La oposición histórica de Navarra al Ejército Español*, Txalaparta.
- , (1995): *Potosí. Andanzas de un Navarro en la guerra de las naciones*, Txalaparta.
- , (2001): *Historia de Tafalla-Tafallaren Historia*, Altaffaylla.
- , (2004): *Réquiem para sordos*, Txalaparta.
- , (2006): *Cien razones por las que dejé de ser español*, Txalaparta.
- , (2009): *Como puta por rastrojo. Origen y uso de algunos dichos navarros*, Altaffaylla.

